

## Aizpitarteko bizilagunak

Badira urteak (1960–1964) Errenderiko lurretan ikerlanean ibili nintzala. Aizpitarteko harpeetan alegia. Han egin nituan azterketa batzuek, baita atzeman ere leen-gizonen — gure aspaldiko arbasoen — aztarnak eta eginkariak. Hauen agiria *Munibe* aldizkarian argitarazi nuan.

Han bildutako tresna edo eskulanen bidez, ikasi genduan, aldi luzean — millaka urteetan —, eiza batez ere azkurritzat zutela, harpe haietan gizakiak bizi izan zirala. Beren izkillu, lanabes eta zenbait erti-lan Donostiko San Telmo museoan daude orain gordeak.

Aizpitarteko eiztariak gure oroipena merezi dutela adierazteko idazten eta izenpetzen ditut lerro hauek DARSO'n.

Barandiaran'go Joxemiel